

#BAIEUSKARARISARIAK18

Ekainak 22 • Tabakalera • 14:00

EMAN IZENA

berria



Estilo
liburua



Gasteiz
17 gradu

Sartu

Asteazkena
2018ko ekainak 20



Gizartea Politika Ekonomia Mundua Iritzia Kultura Kirola Bizigiro

Berria TB

Kultura

Lehenengo gutunak


Maddi Etxeberria Otaegik 'Zein usain dute oroitzapenek?' aurreneko eleberria argitaratu du. Gazte irakurleei zuzendutako lana da



Mikel
Lizarralde



Maddi Etxeberria Otaegi, herenegun, Donostian. MAIALEN ANDRES / FOKU



2018ko ekainak 13



Hutsune bat betetzen saiatzen da Erein argitaletxearen Bioleta saila. Nerabezaroa atzean utzi duten gazteentzako atala da, eta, besteak beste, liburu hauek biltzen ditu: Ramon Saizarbitoriaren *Kandinskyren tradizioa*, Philip Pullmanen *Tximeleta tatuajea* eta *Zubi hautsia*, Mariasun Landaren *Azken balada* eta Karlos Linazasororen *Mendekuaren graziaz*. Nolanahi ere, Iñaki Aldekoa argitaletxeko editoreak azaldu duenez, «zaila» izaten da esparru horrentzako lan egokiak aurkitzea, eta askotan «enkarguz» egiten dira lanak.

Ez da hori *Zein usain dute oroitzapenek?* Maddi Etxeberria Otaegiren (Andoain, Gipuzkoa, 1998) opera primaren kasua. Idazleak berak

bidali zuen argitaletxera, eta, izkribua irakurrita, Aldekoak ondorioztatu zuen «aintzat hartzeko lana» zela. «Lan pertsonala da, lehen pertsonan idatzitakoa, eta indar handia du. Baina batik bat sinesgarria da, eta sendotasuna erakusten du».

Txiki-txikitatik, irakurzalea eta literaturaren zalea izan da Etxeberria Otaegi, eta horrek idaztera ere eraman zuen gazte-gazte zela.

«Koaderno txiki bati» kontatu izan dizkio bere istorioak, baina hainbat sari ere irabazi ditu, hala nola Martin Ugalde eta Urruzunotarrak. Azken horrek balio izan zion «idazle eta zale amorratuak» ezagutzeko. «Normalean, isolatu samarrak izan gara, eta han topatu nituen literatura ni bezala bizi zuten beste hainbat lagun». Asko idatzi izan du, eta Zuzeu agerkari digitalean atera izan dira bere lan batzuk. Izanaren itzalak bloga abiatu zuen, berriz, duela hiru urte.

Gutun bidez eraikitako lana

Gaiak Heleni igortzen dizkion gutunak dira *Zein usain dute oroitzapenek?* lanaren ardatz. Gaia euskal herritarrak Colchesterretik (Ingalaterra) lagunari bidaltzen dizkion eskutitz horiek gauzatzen dute kontakizuna: lagun zahar eta berriak, amodio zahar eta berriak, bizimodu aldaketa, Euskal Herriarekiko harremana... Gai ugari agertzen dira nobelaren orrietan.

Liburua idazten hasi zenean ez zuen buruan eleberriak hartuko zuen azkeneko forma. «Idazten hasi nintzen, eta gero hartu du forma». Protagonista nagusia Ingalaterran kokatu izana ere ez da oharkabean hartutako erabakia. «Euskal Herritik atera behar nuen, hemengoekin

nolabaiteko distantzia bat hartzeko».

Etxeberria Otaegik asko idazten du, baina ez du askorik ezabatzen.
«Orraztu egiten dut, edo lekuz aldatu, edo gorde, baina ezabatu, ez dut ezabatzen».

Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIAren etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea. Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zugan.

Martxelo Otamendi
BERRIAko zuzendaria

Izan zaitez BERRIAlaguna

berria

Berria.eus - Euskal Editorea SM
Telefonoa: 943-30 40 30
Faxa: 943-59 01 72
Webgunea: webgunea@berria.eus

JARRAITU

f Facebook
G Google

SAILAK

Gizartea
Politika





Kirola
Kultura

LEGEA

Lege Informazioa
Pribatutasun




Publizitatea: publi@bidera.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

 Twitter
 Instagram
 Youtube
 RSS

Mundua
Ekonomia
Iritzia
Berria TB

Bizigiro
Ibilkari
Infografiak
Argazkiak

politika
Cookieak
 Lizentzia
Publizitatea
Bidera zerbitzuak



Irakurtzen ari zaren edukia libre ematen jarraitu nahi dugu. Euskaraz informatzea da gure eginkizuna, zure eskubidea. Sareko irakurlea bazara, konprometitu zaitez irakurtzen ari zarenarekin. **Geroa zukan.**

Izan zaitez BERRIALaguna

